



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Guipúzcoa

Diputatu Nagusiaren Kabinetean  
Gabinete del Diputado General

2000.4.2

24. Orr. EL DIARIO VASCO

BEGIKOAK JOXEAN MUÑOZ

## 'Zehar'

**E**Z da nobedade, 41 aldiz gertatu da. Ez da albiste, etxean orain hiru bat aste jaso nuen eta 99ko data dakar. Oso bereziak dira denborarekin dituen harremanak. Zeharkakoak.

Zehar Artelekuak argitaratzen duen aldizkaria da. Ikuspegi berriak bilatzen ditu, berrizalea da, baina ez da albitezalea. Ez du egunerokotasunaren lehian ibili beharrik. Ez du zertan berehala eresia, berehala ikusia, berehala irentsia izanik. Gabonetan argitaratu izan bajute, ez zuen aparteko berritasunik irabaziko. Hilabete barru irakurrita, ez du berririk ezer galduko. Ez da telebistaren aurrean irakurtzekoa. Denbora eskaintzi behar zaio, irudiak iresteari utzita. une batez, nabigatzeaz ahaztuta.

### Telebistaz

41. Zehar honek telebista du gai nagusia. Ez du galdetzen zer dugun telebistaren kontra eta zer dugun telebistaren alde, batrik eta zer pentsatzen duten, zer egiten duten artistek telebistan eta telebistaz. Telebista onartzu eta erabiliz. Ohiko telebistaren jokaeraz aparte, ohiko artearen il-doetatik landa. Zeharka jokatu.

99ko irailean, Artelekura telebistaren inguruko jardunaldietara (+televisión) azaltzerik izan ez genuenoi, aldizkariak eskaintzen digu eztabaidara inguratzeko bidea. Artelekuko berriekin du, beraz, zerkusia. Baina Zehar ez da berri-emalile hutsa, lekukoa batzuk: eztabaidaren berri izan zuena, eztabaida zaindu duena eta orain, eztabaida berriro abian jarzen duena.

Telebistako langileak, eguneroko telebista arruntean diharduenak, ez du maratila erabilgarriarik aurkituko gogoeta

hauetan. Artea ez da berehala erabiliz ahal izateko lanabesa. Artea zeharbidetan barrera ibili ohi da, denbora arruntaren lege idatzgabeak hankargoratu nahian. Gure museotatik urrun dauden arte moetak dira eta gure eguneroko lanetik ere aparte. Bide berriak urratzeko saioak dira. Inori ezer ziurtatu ezin dioten ahaleginak.

### Trabes

Hori da, hain zuzen ere, telebista arruntak ziurtatzen duena: hor izango dela beti, atzo bezala, bihar bezala, beti berdín eta beti berri, etengabe piztuta, etengabe hasten, hurrenez hurren datorrena iragartzen. Ziur dakigu ez digula hutsik egingo. Artelekuk, berriz, huts egitea ematen die garrantzia, nahita bilatutako okerret, errakuntzet, telebistaren jarloan eragindako etenei.

Epe laburreko etekina bilatzen den garaioan, uzta erein orduko jaso behar izaten dute enpresa, erakunde, nahiz politikoei. Diruaren truke irudi ona irabazteko epea ez da lau urtez gorakoa izaten. Eta hala ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak jakin izan zuen trabesa Arteleku bezalako egitasmo zail eta zeharkakoaren alde egiten.

Ez zen trabes segurua. Arteleku ez da jauregia, ez da bereziki apaina, ez dago erdigunean, jendearen eta hedabideen egarri. Saiatzeko, ahaleginetan ahalegintzeko eta beldurrik gabe huts egiteko aukera ematen duten leku bakanetakoa izango da. Horrek egiten ditu beharrezkoak, bai Arteleku eta bai Zehar aldizkaria.

Apostu egingo nuke: huts egiteko aukera onartzen dutelako asmatzen dute.



Aldizkariaren azala.